

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2016/2017 ikasturtea

IRTEERAK, HAUR HEZKUNTZAN ERABILTZEKO BALIABIDE DIDAKTIKO APROPOSAK

Egilea: Garazi Hernandez Velasco

Zuzendaria: Maite Morentín Pascual

Leioan, 2017ko maiatzaren 18n

A U R K I B I D E A

Sarrera	4
1. Esparru teorikoa	4
1.1 Zientzia arloa Haur Hezkuntzako Curriculumaren barruan	4
1.2 Irteerak zer dira eta haien ezaugarri nagusiak	5
1.3 Irteera motak	7
1.4 Irteeren egitura	7
1.5 Irteerak zientzia irakasteko baliabideak	10
2. Esparru praktikoa	10
2.1 Metodologia	11
2.2 Egoeraren azterketa	11
2.2.1 Testuingurua	11
2.2.2 Espazioak	13
3. Irteerak (Behaketa eta Esku-hartzea)	14
3.1 Irteera behaketa	14
3.1.1 Emaitzak	16
3.2 Irteera esku-hartzea	17
3.2.1 Emaitzak	18
4. Ondorioak	20
5. Eskerrak	23
6. Erreferentzia bibliografikoak	24
6. Eranskinak	26
I. Eranskina: Nik sortutako eta kontatutako ipuina	
II. Eranskina: Haurrek sortu zuten hipotesien kartulina	
III. Eranskina: Nik sortutako eta ikasleek osatutako landa liburua	
IV. Eranskina: Parkean zuhaitzen inguruan emandako azalpenen eskema	
V. Eranskina: Irteerak behatzeko erabilitako taula osatuta	

Irteerak, Haur Hezkuntzan erabiltzeko baliabide aproposak

Garazi Hernández Velasco

UPV/EHU

Laburpena

Haur Hezkuntzan erabili dezakegun ikaskuntzarako baliabide aberasgarrienetako bat irteerak dira, hauek haurren garapen globala sustatzen baitute. Hala ere, irteeretan ikaskuntza esanguratsua gertatzeko eta umeen partaidetza eta motibazioa sustatzeko, alde aurretik irteera ondo diseinatzea eta umeen interesak zein haiek parte-hartzeko aukerak kontuan hartzea oinarrizkoa da. Lan honetan bi irteeren garapena eta umeengan izan duen eragina aztertuko dira, ondoren zenbait ondorio ateratzeko.

Irteera, Haur Hezkuntza, natura, motibazioa, parte-hartzea

Resumen

En Educación Infantil, unos de los recursos mas enriquecedores que se pueden usar son las salidas, ya que promueven el desarrollo global del niño. No obstante, para que en las salidas se produzca un aprendizaje significativo y para promover la motivación como la participación, es imprescindible diseñarlas de ante mano, teniendo en cuenta los intereses de los niños y niñas así como sus opciones para tomar parte en la salida. En este trabajo se analizaran dos salidas así como la influencia que han tenido sobre el alumnado. Finalmente, teniendo en cuenta los resultados obtenidos, se concretarán varias conclusiones.

Salida, Educación Infantil, naturaleza, motivación, participación

Abstract

In Early childhood education , one of the most enriching resources that could be used are the school excursions, since they promote the child global development. Nevertheless, in order to produce a significant learning and encourage motivation, as well as participation, it is indispensable to design them beforehand, taking into account the children interests and their options to take part in them. In this work two excursions will be assessed focusing on the influence they have had on the students. Finally, bearing in mind the results obtained , some conclusions will be drawn.

Excursion, Early childhood education, nature, motivation, motivation

Sarrera

Umeak bere bizipenen eta esperientzien bidez, inguratzen duen mundua ulertzen du. Izan ere, esperientzia errealeen bidez eskuratutako informazioa askoz esanguratsuagoa da. Gainera, bizipen horien bidez, ezagutza guztiak modu global batean txertatzen dira.

Hori kontuan izanda, irteerek haurrek haien esperientzia propiotik ikasteko aukera ematen dute. Hau da, umea mundu errealarekin kontaktu zuzena izatea baimentzen dute eta beraz, ikaskuntza-irakaskuntza esanguratsua gauzatzea. Irteerak egitean haurrek behatzeko, galdetzeko, materialak biltzeko, konparatzeko eta esperimentatzeko aukera dute. Hortaz, irteerak Haur Hezkuntzarako baliabide onuragarriak zein baliagarriak izan daitezke.

Lan honetan, hainbat adituek gai honi buruz esaten dutena kontuan hartuz, bi irteera ikustatuko dira. Lehenengo eta behin, behaketa foku batzuk zehaztuko dira bi irteeretan zehar kontuan hartzeko. Jarraian, eskola batek proposatutako irteera bat behatuko eta aztertuko da. Ondoren, irteera horretan oinarrituz beste bat diseinatuko zein praktikan jarriko da eta horren ostean irteera hau ere analizatuko da. Modu horretan, lortutako emaitzak aztertuz, irteerak benetan erabilgarriak diren edo ez jakiteko.

Beraz, Gradu Amaierako Lan honen bidez lortu nahi diren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Eskola batek proposatutako irteera bat aztertzea
- 5 urteko gela batean egiteko irteera bat diseinatzea
- Bi irteeren emaitzak aztertzea eta horietan oinarrituz ondorioak ateratzea

1. Esparru Teorikoa

1.1 Zientziak Haur Hezkuntzako Curriculumaren barruan

Haur Hezkuntzako 237/2015 Curriculum dekretuan (2015) zehazten den bezala, garai honetan landu beharreko oinarrizko konpetentzien artean, *Zientziarako konpetentzia* aurkitzen da. Curriculumaren arabera, konpetentzia hau garatzeko, pertsonen arteko hartu-emanak landu behar dira, eskuz erabili behar dira objektuak eta materialak, aldatu

eta eraldatu egin behar dira, jarduera horien emaitzak behatu behar dira eta gerta daitezkeen ondorioak aurreratu eta aurrean. (Haur Hezkuntzako Curriculumak, 2015)

Horrez gain, Curriculumak zientzien irakaspenari garrantzia ematen dio. Izan ere, haurren jakin-min eta interes handia pizten dute ingurune naturalak eta haren baitako izaki eta elementuek. Naturako elementuekin izaten dituen bizipenak eta elementu horiekiko gogoeta gidatuak bitarteko izango dira haurrarentzat, pertsona helduen laguntzarekin, naturako zenbait fenomeno eta haien adierazpenak eta ondorioak beha ditzen, eta, pixkanaka, izaki bizidunak ezagutzeari ekingo dio. Era berean, izakien artean ezartzen diren erlazioak, erlazio horien ezaugarriak eta izaki horien bizi-funtzio eta -zikloetako batzuk ezagutzen hasiko dira. (Haur Hezkuntzako Curriculumak, 2015)

Guzti hau kontuan izanda, ezin uka genezake Haur Hezkuntzan zientziarekin erlazionatutako edukiak lantzen hastea aproposa dela. Modu horretan hurrek ingurune fisiko eta naturalari buruzko ezagutzak eraikitzeak aukera izango dute.

Horrekin lotuta, haurrak ingurunearekin eta parekoekin harremanetan aritzeak aukera ematen du haiek ingurune hurbilean integra daitezkeen eta pentsamendu-prozesuak lantzeko: erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, errealitatea eta bizileku duten mundua ezagutzeko eta baliabide kognitiboak gero eta modu landuagoan eta konplexuagoan erabiltzeko. Horrela, ikasten ikasteko gaitasuna, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna eta matematikarako gaitasuna garatuz joango dira . (Haur Hezkuntzako Curriculumak, 2015)

1.2 Irteerak, zer dira eta ezaugarri nagusiak

Eskola-esparruan irteerei buruz mintzatzeko, lehenengo eta behin irteera zer den definitu behar dugu. Tejada Cuesta-ren (2009) aburuz, irteerak hezkuntza-esperientziak dira. Esperientzia hauek taldeka eta helduaren parte-hartzearekin egiten dira eta eskola esparruaren kanpo zein barruan dauden beste espazio batzuetara lekualdatzea suposatzen du.

Estorch Martin, Gomez Beltrán, Gonzalez Perez, Quesada Garcia eta Quijasno Mezquita-ren (1993) arabera, aldiz, “La salida es una “actividad generadora” [...] que

enlaza la escuela con el medio [...] y permite la vivencia directa y el descubrimiento del entorno.”

Definizio hauek kontuan izanda, irteerek helburu hezitzailea dute. Hortaz, hezkuntzan erabiltzeko tresna baliagarriak izan daitezke. Gainera, irteeren ezaugarri nagusien artean, haien ludikotasuna daukagu. Tejada Cuesta-k (2009) aipatzen duen bezala, “Las salidas tienen un carácter lúdico. El salir, el cambiar, el hacer algo diferente produce sentimientos de alegría e interés.” Hezkuntza arloan, ezaugarri honek abantaila bat suposatzen du. Izan ere, Bisson eta Luckner-ek (1996) egindako ikerketa kontuan izaten badugu, dibertimenduak eragin positiboa dauka ikasketa prozesuan, “ya que invita a la motivación intrínseca reconocida como un contribuyente y predictor importante en el logro escolar.” (Molina Ruiz, 2006, aipatua).

Lopez Martinez-ek (2007) ere, ideia bera azpimarratzen du. Bere hitzetan, irteerek klaseen ohiko errutina apurtzen dute, horregatik, ikasleentzako oso motibagarriak dira. Baina autore honek azaltzen duen bezala, irteerek ikaskuntza zein ezagutza mundu errealera lekualdatzea ere ahalbidetzen dute. Hortaz, “solo las salidas permiten al alumno alcanzar una serie de vivencias directas, que difícilmente se pueden adquirir entre las cuatro paredes del aula” (Puche, S. M., 2010) Hau da, irteeren bidez haurrak haien ingurunera hurbiltzen dira, haien interesak zein jakin-minak asetzeko.

Beraz, Estorch Martín eta besteek (1993) aipatzen duten bezala, umeei inguru aberats eta ugariak eskainiz gero, gaitasun zein trebezia desberdinak garatzeko aukera ematen diegu: deszentralizazio gaitasuna, komunikazio gaitasuna, pentsamendu dibergente zein sortzailea, bere buruarekiko zein besteenganako elkar ulertzea, jarrera kooperatibo, aktibo zein parte-hartzailea eta autonomia, besteak beste. Izan ere, irteerak egitean, leku berriak ezagutzen dira. Hortaz, ikasleek leku hauek ikertu zein bertako arauak ikasi behar dituzte. Horrez gain, leku horietan ikaskideez gain beste pertsona batzuekin (museoko gidaria, parkeko garbitzailea, dendako saltzailea...) elkarrekintzan egoteko aukera izango dute.

Horrez gain, irteerek eskola arloan onuragarriak izan daitezkeen beste ezaugarri batzuk dituzte. Travé-ren (2003) hitzetan, haurren behaketa gaitasuna zein haien espiritu

kritikoa sustatzen da, errealitatea interpretatzen baitute eta ingururekiko errespetuzko jarrerak errazten dituzte.

Laburbilduz eta Jonson eta Tunnicliffe-ren (2000) hitzetan oinarrituz, “Las características distintivas de “la educación fuera de la escuela” es que incluye aprendizaje experimental, implica un enfoque de proceso completo; supone autenticidad de experiencia, desafío, presión para aumentar la responsabilidad; ofrece la oportunidad de hacer frente a mayores retos y hace posible la conexión con la comunidad.” (Molina Ruiz-ek, 2006, aipatuta)

Azkenik, autore guzti horiek irteerek bete behar duten beste ezaugarri bat aipatzen dute. Proposatutako irteerek gelan lantzen denarekin lotura izan behar dute. Lemelin eta Bencze (2004) bat datoz ideia horrekin, eskolako jarduerak eta irteera erlazionatzen duten loturak existitu behar dira, ikasleek informazio berriari zentzua aurkitzeko, alde aurreko esperientziekin erlazionatzen baitute. Modu horretan haien eredu kognitiboa garatzen jarraitu dezakete. (Morentín eta Gisasola-k, 2013, aipatuta)

1.3 Irteera motak

Irteerak sailkatzeko orduan, irizpide desberdinen arabera egin ohi da, adibidez: irteeraren helburu nagusiaren arabera, bisitatuko den lekuaren arabera, egingo diren jardueren arabera... Kasu honetan banaketa orokor bat egingo da, eta irteerak bi multzo nagusitan banatuko dira, irteeraren lekuaren arabera:

- Leku zabalak: parkeak, hondartzak, basoak, mendiak...
- Leku itxiak: museoak, zooak, itsasontziak, gazteluak, antzokiak...

1.4 Irteeren egitura

Irteerak ikasteko-irakasteko baliabide giza erabiltzean, alde aurreko planifikazioa ezinbestekoa da. Izan ere, irteeren bidez benetako etekina lortzeko, oso garrantzitsua da alde aurretik ondo antolatuta egotea. Lopez Martín-ek (2007) irteera haien artean giltzatuta egon behar diren ariketaz osatuta egon behar dela dio. Horrela haurrek haien ezagutzen arteko loturak egin ditzakete irteera baino lehen, bitartean eta ostean.

Hortaz, irteerek egituraketa zehatza nahiz malgua izan behar dute, haurren ikaskuntza errazteko. Morentin eta Gisasola (2013) zein Urones eta Sanchez-Barbudo (1997) bat datoz aipatzean irteerak hiru momentutan banatu behar direla: Irteera gertatu baino lehen, irteeran zehar eta irteera ostean. Egitura hau ez da eskema zurrun bat, baizik eta, umeen interes, ezaugarri eta beharretara egokitu behar den ariketa zein jardueren multzoa.

Irteera egin baino lehen bi pauso nagusi egin behar dira. Alde batetik, lekua aukeratu behar da eta irteera antolatu. Hau da, irakasleak alde zuzeneko bisita egin dezake lekua ezagutzeko, gidak zein mapak eskuratzeko... Behin informazio hori bilduta irteera antolatu behar da, hots, helburuak zein edukiak zehaztu, ariketak diseinatu etab. Beste aldetik, haurrei irteera aurkeztu behar zaie: nora joango diren, bertan zer egingo duten, ibilbidea, denbora... Horretaz gain, haurren motibazioa sustatzea eta haien alde zuzeneko ezagutzak aztertzea funtsezkoa da.

Ondoren, irteeran zehar diseinatutako ariketak edota proposamenak egingo dira. Ariketa hauek irakasleak berak diseinatu ditzake edo museoak, zoologikoa etab. diseinatutakoak izan daitezke. Une honetan garrantzitsuenak umeek egiten dituzten jardueren kalitatea da, ez kantitatea. Hortaz, jarduerak gelan landutako gaiak, ideiak, eta edukiak sakontzeko erabilgarriak izatea oinarritzkoa da.

Azkenik, irteera egin ostean, bizitutakoa komunean jarri behar da, haurren hausnarketa sustatuz. Horrez gain beste ariketa batzuk egin daitezke, hala nola, argazki desberdinak behatu zein komentatu, muralak egitea, bildutako materialak (hostoak, lumak...) bildu eta antolatu eta abar. Ariketa hauek irteeran zehar ikusitakoa sendotzeko mesedegarriak izango dira.

Hala ere, irteeraren egitura betetzearekin ez da nahiko. Izan ere, irteerak egitean, orokorrean, haurrek bizipen zein esperientzia berriak izaten dituzte. Horregatik, umeek esperientzia zein bizipen berri horietan laguntzea eta gidatzea beharrezkoa da. Horrela, bukatzean haurrek ezagutza eta eduki berriak eskuratu ahal izango dituzte. (Hein, 1998, Morentin eta Gisasola-k, 2013, aipatuta)

Hau da, helduaren lan bakarra ez da irteera diseinatzea edo bizitatuko den lekua zein egingo diren jarduerak erabakitzea, baizik eta ikasleak laguntzea irteera horretan ikasketa berriak eskuratzeko zein aurreko ezagutzekin loturak egiteko.

Beraz, nahiz eta hurrek ikertzeko berezko gaitasuna zein motibazioa izan, irakaslearen lana ezinbestekoa izango da, huarra gidatzeko: behaketa zentratzeko, proposamenak egiteko, zalantzak asetzeko, haurren lana koordinatzeko etab. Baina aldi berean, momentu oro behaketa lana egin behar du, haurren jarduera eta ikasketa prozesua ebaluatzeko.

Hortaz, Estorch Martin eta besteek (1993) ipatzen duten bezala:

“El papel del educador es uno de los elementos determinantes del proceso educativo. Las características personales, vivencias, formas de interactuar con el niño, la organización del tiempo y el espacio en función de los objetivos, el modelo de “adulto” que ofrece incide profundamente en el desarrollo y las relaciones que se establecen en el grupo.” (Estorch Martín eta besteak, 1993)

1.5 Irteerak gure ingurua ezagutzeko baliabideak

Aurreko puntuetan jasotako informazioa laburbilduz, irteerak hurrek haien ezagutza modu esanguratsu beatean garatzeko erabilgarriak dira. Gainera, haientzat esperientzia motibagarriak izan ohi dira, haien interesa pizten dutenak. Zientzia arloan zentratuz eta Predinaci-ren (2012) hitzak kontuan hartuz, Zientziek inguratzen gaituen mundua ulertzen laguntzen gaituzte. Beraz, zientzien ikasketa xedea gehien bat geletatik kanpo kokatzen dada, nola justifikatu daiteke gelatik ez irtetea?

Bestalde, autore asko dira txangoen garrantziaz hitz egiten dutenak, ez soilik zientzia lantzeko, baizik eta irakaskuntza orokorra lantzeko. Besteak beste, Benejan-ek (2003) aipatzen du:

Si aceptamos que los niños y las niñas aprenden gracias a su experiencia personal directa, podemos inferir que la escuela debe proporcionar oportunidades de aprendizaje que el el alumno, por si mismo y por inducción, descubra y construya conocimientos. [...] Uno de los recursos didácticos que ejemplifican mejor esta manera de entender el aprendizaje es la salida escolar cuando el objetivo es que el alumno observe, busque, constate, recoja, manipule y explique lo que ve o descubre. (Benejan, 2003)

Haur Hezkuntzan zentratuz gero, Hurones Jambrina-k (1997) esaten duen bezala, gertuko ingurune naturalera irteerak egiteak landare, animalia, ura, lurra, hiriko zein naturako paisaia eta urtaroei buruzko Unitate Didaktikoak diseinatzeko aukera ematen digu.

Baina ez hori bakarrik, Estortche Martín eta besteek (1993) haien lanean azaltzen duten bezala, irteeren bidez modu global batean ikasten da, ezaugarri hau Haur Hezkuntzan oinarritzkoa izanik. Haien arabera, edozein irteerak globalizazioa sustatzen du:

- Errealitate zabal eta globalak eskaintzen dituelako.
- Umeen motibazioa sustatzen duelako
- Haien behar eta interesetara egokitzen delako.
- Ikasketa esanguratsua hornitzen duelako.
- Haien bidez edozein eremuko esperientzia eta ezagutzak, modu ludiko eta malgu batean, landu daitezkeelako (Identitate eta autonomia pertsonala, inguru fisiko eta soziala, komunikazio eta errepresentazioa.)

Hau da, irteera errealitate hurbil eta esanguratsu batean eginez gero, irteerek arlo pertsonala, inguruko ezagutza eta komunikazioa lantzeko esperientziak eskaintzen dituzte. Nola esperientzia hori zatituta agertzen ez den, hiru arlo horiek inplikaturik egongo dira. Nahiz eta, egiten dugun irteeraren arabera, bata edo bestea gehiago landuko den.

Hortaz, atal honetan umearen ingurua aipatzean, erreferentzia egiten da bere inguru fisiko, natural eta sozialari, bai hurbilekoak izan daitezkeenak (familia, etxea, parkea, lagunak...) bai pixka urrunekoak direnak (oihaneko animaliak, aitzineko gizarteak...)

2. Esparru Praktikoa

GRAL honetan 5 urteko umeekin egindako bi irteera deskribatuko eta aztertuko dira, batez ere, umeen motibazioan zein parte-hartzean zentratuz. Lehenengo irteera Santurtziko eskola batek proposatutako irteera izan da eta Santurtziko portuan kokatuta

dauden bi instalazioetara egin da. Beste irteera, aldiz, nik diseinatu, proposatu eta gauzatu dut. Kasu honetan Santurtziko Parkea bisitatu da.

2.1 Metodologia

Lan honetan planteatu diren helburuak lortzeko eman diren pausoak honako hauek dira:

Lehenengo eta behin Santurtziko eskolako zuzendariarekin hitz egin da. Alde batetik, 5 urteko umeek zein irteera egingo zuten jakiteko eta bestetik, nik irteera bat gauzatzeko baimena eskatzeko.

Irteeren inguruko informazioa jaso eta irteera bat egiteko baimena lortu ostean, irteera horiek aztertzeko “behaketa fokuak” zehaztu dira: motibazioa, arreta, parte-hartzea eta autonomia. Baita foku bakoitzean kontuan hartuko diren indikatzaileak. Datu horiek biltzeko, umeen jarrerak zein ekarpenak behatu dira. Beraz, lortu diren emaitzak kualitatiboak izan dira. (Informazio zehatzagoa ikusteko, V. Eranskinera jo).

Martxoaren 27an eskolak proposatutako irteera egin da. Egun horretan *Agurtza Arrantza Interpretazio zentroa* eta *Santurtzi Itsasoa Museoa* bisitatu ziren. Bertan bisita gidatu bat egin zen, beraz, nire lana, ikasleen tutorea laguntzeaz gain, behaketa zehatza egitea izan zen.

Irteera horretan lortutako emaitzak aztertu ondoren, alderdi ahulenak antzeman dira eta hauek hobetzeko asmoz, Santurtziko parkea bisitatzeko irteera diseinatu da: aldez aurreko, bitarteko eta geroko jarduerak zehaztuz. Apirilaren 3, 4 eta 5ean, gela barruan zein parkean egingo ziren esku-hartzeak burutu ziren. (Informazio zehatzagoa ikusteko, I, II, III eta IV. Eranskinetara jo).

Bukatzeko, irteera honen emaitzak ere aztertu dira eta aurrekoarekin konparatu dira. Horretan oinarrituz, bien arteko konparazioa egin da eta ondorio batzuk atera dira.

2.2 Egoeraren azterketa

2.2.1 Testuingurua

Lan hau Santurtziko eskola batean gauzatu da, hain zuzen, 2016-17 ikasturteko bigarren hiruhilekoan, 5 urteko haurrekin.

Eskola itunpekoa da eta Santurtzin (Bizkaia) kokatzen da. Eskola honetan erlijioak zein diziplinak garrantzia handia dute eta orokorrean metodologia nahiko tradizionala jarraitzen dute (liburuak, fitxak...). Bere hizkuntza eredu B da, hortaz, irakasgai batzuk erdaraz irakasten dira eta beste batzuk ordea, euskaraz.

GRALa gauzatutako gelan zentratuz gero, aipatu bezala bost urteko gelako umeekin burutu da. Ikasgela honetan erabiltzen den metodologiari dagokionez, haien irakaskuntza SM editorialeko bost liburu bildumetan oinarritzen da eta bakoitzak ezagutza batean oinarritzen da:

- *Kolore* liburua, ingurunea batez ere ezagutzeko.
- *Matematika* liburua, tamainak, gehiketak, kenketak eta sailkapenak jorrazteko batez ere erabiltzen da.
- *Hola Jesús* Erlijio liburua, kristautasuna lantzeko, gehienetan errespetuzko baloreak zein Bibliako pasarteak.
- *La Galaxia De Las Letras* liburua, irakurketa eta idazketa lantzeko.
- *Parque De Papel* liburua, irakurtzeko.

Liburu guztietan fitxen bidez lan egitea planteatzen da. Hortaz, gela honetako metodologia fitxetan oinarritzen dela esan dezakegu. Beraz, erabiltzen den materiala aztertuta, gelako metodologiak eskolak markatzen duen ildo bera jarraitzen duela ondoriozta daiteke. Izan ere, metodologia tradizionala jarraitzen dute zeinetan diziplinak garrantzia handia duen: irakasleak dagokion azalpenak ematen ditu eta hurrek irakasleak egindakoa imitatzen dute.

Horrez gain, materiala ez ezik, gelako kokapena ere nahiko tradizionala dela esan daiteke: aulkiak txokotan antolatuta egon beharreak, bi ilaratan kokatuta daude, bata bestearen aurrean. Beraz, talde lana zein elkarrekintzak mugatzen dira.

Bestalde, ikasle taldean zentratuz, 20 umeek osatzen dute: 8 neska eta 12 mutil. Haur guztiek Santurtzikoak dira nahiz eta bi umeen gurasoak Hego Ameriketakoak izan eta guztien ama hizkuntza erdara da.

2.2.2 Espazioak

Lan honetan bi irteera aztertuko dira. Lehenengo irteeran bi espazio bisitatu ziren: *Agurtza Arrantza Interpretazio zentroa* (Santurtzi) eta *Santurtzi Itsasoa Museoa*. Hortaz, esparru teorikoan egindako sailkapena berreskuratuz, eskolak proposatutako irteeran bi leku itxi bisitatu ziren (Museoa zein itsasontzia) eta bietan bisita gidatu bat egin zen.

Beste irteeran espazio bakarra bisitatu zen: Santurtziko parke nagusia. Kasu honetan ordea, irteera leku zabal batera egin zen: Parkea. Eta aurreko kasuan ez bezala, ez da bisita gidatua izan, irakasleak (kasu honetan nik) azalpenak emateko ardura izan zuen.

Agurtza Arrantza Interpretazio zentroa egurrezko atunketari motordun bat da eta 1968an eraiki zuten Lekeition. Bizkaiko kostaldean dagoen mota horretako azken ontzietako bat da eta zalantza barik, Santurtziko ondarearen parte garrantzitsua. Hegaluzeak ez ezik, sardinak, berdelak, txitxarroak eta antxoak arrantzatu ohi ziren bertan.

Itsasontzi honen bidez, antzinako arrantzaleen mundua ezagutzeko aukera dago: bisita gidatuetan arrantzaleen eguneroko bizitzaren eta erabiltzen zituzten arrantza-tresnen berri ematen da. Ez hori bakarrik, bisitak aukera ematen du itsasontziaren leku deigarrienak bisitatzeko: kamaroteak, makina gela, sukaldea, komunak eta aginte-zubia. Horrez gain, bertan, ontziaren ezaugarriak, Santurtziko portuaren historia laburra eta arrantza nahiz itsasontzi mota desberdinak ezagutzeko parada dago.

Bisita gidatuaz gain, itsasontzitik banatuta dauden informazio horma-irudiak eta audio-gidak daude, zeinetan arrantzale ahotsa duen gizon baten ahotz grabaketak azalpenak ematen dituen.

Santurtzi Itsasoa Museoa, Arrantzaleen Kofradiaren barruan kokatuta dago. Kofradia hau Santurtziko eraikin garrantzitsuenetarikoa da eta kaialdean kokatuta dago. Zentro honek Santurtzik eta itsasoak alderdi guztietan duten lotura erakusten du: lanean, kulturaren, aisian eta gizartean (arrantzaleak eta sardina-saltzaileak). Museoa, batez ere, Santurtziko portuaren goraldean zentratzen da. Izan ere, garai horretan Santurtzik Euskal itsasaldeko herri arrantzaleen artean garrantzi oso handia zuen.

Museo honek bisita gidatuak eskaintzen ditu. Baina horrez gain, portuarekin eta bere biztanleekin erlazionatuta dauden esperientziak eskaintzen ditu: antzerkiak, dastatzeak, enkanteak, tailerrak...

Santurtziko Parkea herriaren erdigunean dago, Arrantza Portutik gertu. 1,5 hektarea inguru dituen parkea da eta oinezkoen gunez zein lorategi desberdinez osatuta dago. Bertan Euskal Herrian ohikoak ez diren zuhaitz ugari daude: Kaliforniako sekuoia erraldoiak, Himalaiako zedroak, Japoniako arbustua eta Amerika eta Afrikako palmondoak, besteak beste. Horretaz aparte, zuhaitzekin nahasten diren eskultura ugari daude.

Parke erdian, 1917an eraikitako kiosko dotorea dago, eta hor Nerbioi itsasadarraren inguruko zenbait udalerriren zein Santurtziko historia irudikatzen duten mosaikoak daude.

Parke hau Santurtziko parkerik nagusia da, izan ere, bertan Santurtziarrak bildu ohi dira bai bere kokapena dela eta, bai bertan herriko jarduera mordoa (berbenak, jaiak, umeentzako tailerrak, ekintza bereziak...) gauzatzen direlako.

3. Irteerak (Behaketa eta esku-hartzea)

Lan hau gauzatzeko eman dudan lehenengo pausua 5 urteko haurrekin egin den irteera bat aztertzea izan da. Horren ostean eta behaketa horretan lortutako datuak kontuan hartuz, nik beste irteera bat diseinatu dut eta ikasle berdinekin aurrera eraman dut.

3.1 Irteeraren behaketa

Atal honetan hurrek *Agurtza Arrantza Interpretazio zentrora* eta *Santurtzi Itsasoa Museora* egin zuten irteera jorratuko da.

Irteera hau ikasturte hasieratik programatuta zegoen irteera bat izan da; hala ere, bisita irteera egin baino aste bat lehenago erreserbatu zen dei baten bidez. Dei horretan, ikasleek bisita gidatu bat egingo zutela adostu zen eta batez ere itsasontziaren instalazioaren inguruan eztabaidatu zen; hauek ume txikientzat seguruak ziren edo ez jakiteko.

Irteera egin baino lehen, testuingurua girotzeko edota hurrek irteera hobeto ulertzeko, ez zen inolako jarduerarik egin. Beraz, irteerak ez zuen loturarik izan gelan lantzen geundenarekin.

Bizita goiz batean gauzatu zen. Umeak eskolara ailegatu bezain laster, bisitatuko genuen lekua aztertu zen haiekin, argazkiak erakutsiz. Dena dela, haiek alde aurretik bazekiten hilabete horretan bi irteera egingo zirela.

Jarraian, hamaiketakoa zuten motxilak hartu eta Agurtza Itsasontzira abiatu ginen. (Eskolatik oinez 10-15 minutura). Bertan, gure gidaria izango zen neska bat gure zain zegoen. Berak lehenengo bisita gidatua egin zuen gurekin. Aurreko atalean azaldu dudana bezala, itsasontziaren lekurik esanguratsuenak ikusi genituen. Lekuaren arabera, azalpenak gidariak edo audio-gida batek ematen zituen.

Horrez gain, alde aurretik grabatuta dagoen audio-gidak, argi eta garbi, ez zituen umeen behar izanak kontuan hartzen. Hala ere, hauek entzutean kaioak, itsasoaren olatuak eta antzekoak entzuten ziren. Nire aburuz, hauek umeak testuinguruan errazago sartzeko baliagarriak izan daitezke.

Itsasontzia bisitatu ostean, hamaiketakoa hartu eta museora joan ginen (10 minutu oinez). Hantze, beste bisita gidatu bat egin genuen beste neska batekin. Museoa txikia denez, guztia bisitatu genuen. Bertan emandako azalpenak, aurrekoaren ildo bera jarraitu zuten. Baina kasu honetan, audio-gida batzuk entzun beharrian, bideo batzuk ikusi genituen. Bideo hauek ez daude umeentzako bideratua, baizik eta bisitari helduek ikusteko.

Bi instalazioak ikusi ondoren, eskolara bueltatu ginen eta bertan, tutoreak umei marrazki bat egitea proposatu zien. Marrazkia egiteko baldintza bakarra, ikusitakoaren artean haien gogokoena marraztea eta azaltzea izan zen.

Momentu hauek oso interesgarriak dira umeentzat zer izan den esanguratsuen ikus dezakegulako. Kasu honetan, argi eta garbi bi multzo agertu ziren. Alde batetik, gehiengoak, itsasontzia aipatu zuten asko inoiz ez zirelako itsasontzi batean egon. Bestetik, 4 ume zehazki, museoan zeuden bi erraldoi (arrantzalea eta sardina-saltzailea)

aipatu zuten. Baina bisita gidatua ez zen hauetan zentratu, ia ezta aipatu ere; erraldoiak Santurtziko jaiekin erlazionatzen zituzten, horregatik haurrentzat deigarriak izan ziren.

3.1.1 Irteeraren emaitzak

Jarraian, umeen parte-hartzea, arreta eta motibazioa kontuan hartuz, irteerak izandako emaitzak aztertuko ditut. Orokorrean esan dezaket, umeen adina kontuan hartuta, bi kasuetan azalpenak gehiegizkoak izan arren, umeen interesa eta parte-hartzea nahiko altua izan zela, batez ere irteeraren lehenengoa atalean.

BEHATZEKO FOKUAK	ADIERAZLEAK	EMAITZAK (Irteeraren 1. atalean)	EMAITZAK (Irteeraren 2. atalean)
MOTIBAZIOA	Umeek jarduerarengan interesa erakusten dute.	Altua	Altua
	Jarduera egiterakoan ondo pasatzen dute. Dibertigarria egiten zaie.	Altua	Baxua
ARRETA	Jarduera egiten den bitartean, umeei helduaren azalpenak jarraitzen dituzte.	Ertaina	Nahiko Baxua
	Talde giroa positiboa da azalpenekin jarraitzeko.	Altua	Ertaina
PARTE-HARTZEA	Umeak euren ekarpenak egiten dituzte.	Baxua	Baxua
	Galderak egiten dituzte.	Baxua	Baxua
	Ekintzan gogotsu parte hartzen dute.	Ertaina	Ertaina
AUTONOMIA	Jarduera laguntza barik egiteko aukera dute.	Ez zuten aukerarik izan	Ez zuten aukerarik izan

Altua: ume gehienekin betetzen da. (20-15 ume)

Ertaina: Talde erdia baino gehiagorekin betetzen da. (15-10 ume)

Nahiko Baxua: Talde erdia baino gutxiagorekin betetzen da. (10-5 ume)

Baxua: Ume gutxirekin betetzen da. (5-0 ume)

* Taulak osatuago ikusi nahi izatekotan, V.Eranskina ikusi.

Umeei luzatu zitzaizen informazioan zentratuz gero, nire iritziz, azalpen hauek ez zeuden umetara egokituak. Alde batetik, irteera guztia euskaraz egin zen eta umeei (B eremuan egonda) ez daude ohituta horretara, hortaz azalpenak jarraitzeko zailtasunak zituzten.

Hala ere, hori tutorearen erabakia izan zen. Bestetik, kasu batzuetan umeentzat abstraktuegiak ziren datuak eman ziren: datak, arrantza kantitateak etab.

Horren ondorioz, umeek zenbait momentutan aspertzen ziren edo azalpenak ez zituzten jarraitzen. Hala ere, irteera egin ostean horri buruz ez zenez asko hitz egin, ezin dut zehaztasun handiagoz esan umeek zer ulertu zuten edo zer ikasi zuten.

Alabaina, taulan erreparatuz gero, argi ikus daiteke nola umeen interesa eta parte-hartzea behera doala irteera momentu batetik bestera. Alde batetik, izan daiteke itsasontzia ikasleentzat erakargarriagoa delako. Beste aldetik, ordea, taula erakusten duen moduan, umeek ez zuten aukerarik izan jarduerak edota ariketaren bat egiteko, hots, gidariak zuen irteeraren pisu guztia eta ez zen umeen autonomia sustatu. Hortaz, umeek parte-hartzeko aukera eskasa izatea motibazio eta arreta ezaren zergatia izan daiteke.

3.2 Irteera esku-hartzea

Eskolak proposatutako irteera aztertu ostean, nik egin nahi nuen irteera diseinatu nuen. Horretarako, lehehengo irteerak ez zituen zenbait ezaugarri txertatzea erabaki nuen, besteak beste, azalpenak umeentzat egokituak egon (datu gutxi baina zehatzak eta ulerkorrak), umeek parte-hartzeko aukera gehiago egotea, irteera egin baino lehen gela girotzea, etab. (Zehatzago ikusteko IV: Eranskina ikusi)

Irteera hiru egunetan gauzatu zen eta bere antolaketa honako hau izan zen:

Irteera egin baino lehen	
IPUINA	<p>Irteerari zentzua emateko asmoz, hau da, egingo duguna testuinguru batean kokatzeko eta umeek errazago ulertzeko ipuin bat kontatuko zaie. Kasu honetan ipuina irteera hau egiteko sortu da. (Ipuina ikusteko I. Eranskina ikusi) Istorioaren protagonista Patxi eta Leire dira. Patxi eta Leire ikertzaileak dira eta egun batean berarentzat ezezaguna den hostoa aurkitzen dute. Haien betebeharra zuhaitz hori aurkitzea izango da eta bere ezaugarriak aztertu.</p> <p>Ipuin hau kutxa baten barruan aurkituko da. Kutxa horretan ere Santurtziko parkean dauden 3 zuhaitzen hostoak aurkituko dira (Sekuoia, Ezkia eta Ereintzaren). Ipuina kontatu ostean, umeei galdetuko zaie ea haien protagonisten antzeko abentura bizi nahi duten, izan ere, kutxan hainbat hosto daude eta haien betebeharra haien jatorria ezagutzea izango da.</p>

	Jarraian, umeei kutxan dauden hostoak erakutsiko zaizkie (ume bakoitzeko hosto bat dago), guztiak nahastuta egongo dira. Umeen betebeharra hauek sailkatzea izango da eta ezaugarriak aipatzea, hau da, batez ere, haien arteko desberdintasunak.
IRTEERA AZALDU	Umeei azalduko zaie nora joango garen zuhaitzak bilatzera, kasu honetan Santurtziko Parke nagusira. Bertako argazkiak erakutsiko zaizkie eta egingo den ibilbidea azalduko zaie: eskolatik irten, parkean zein bide jarraituko dugun, parkeko arauak ...
HIPOTESIAK EGIN	Jarraian gure hipotesiak egingo ditugu: Zein zuhaitzetakoa izango den hostoa? Altua edo baxua izango den? Zein animalia biziko diren bertan? Argazkietan agertzen diren zuhaitzen hostoak eta guk ditugunak berdinak dira? Etab. Hipotesi hauek kartulina batean (II. Eranskina) bilduko dira irteera egin ostean zuzentzeko eta konparazioak egiteko.

Irteera eguna	
TALDEAK OSATU	Kutxan zeuden hostoak berriz ere aztertuko dira eta hauen arabera talde txikiak egingo dira. Izan ere, talde bakoitzak zuhaitz bat aurkitzeko ardura izango du, nahiz eta irteera guztiok batera egingo den. Hau da, ibilbidea guztiok batera egingo dugu baina talde txikiek haien hostoari dagokion zuhaitza aurkitzeko ardura dute.
IRTEERA	Parkean ibilbide motza egingo da. Ibilbide horretan hainbat zuhaitz behatuko dira. Hala ere, bakarrik alde zehar aurretik aukeratutako hiru zuhaitzak zehazki aztertuko dira: haien hostoak, izena, inguruko lurra, enborra, altuera, zertarako erabili ditzakegu (Ad. ereinotzaren -Laurel- hostoak sukaldatzeko erabiltzen dira) ...

Irteera ostean	
TERTULIA	Gelan irteeran bisitatukoari buruzko tertulia egingo da. Horretarako, lortutako informazioa komentatuko da, bildutako objektuen zein egindako argazkien inguruan hitz egingo da, oraindik ditugun zalantzak ebazten saiatuko gara... Horrez gain, hasieran sortutako kartulinaz baliatuz, egindako hipotesiak birformulatuko dira edota zuzenduko dira. Jarduera hau baliagarria izan daiteke ebaluazioa egiteko, hots, umeek ulertu dutena zein ikasi dutena behatzeko, baita alde zehar aurretik zituzten ideiekin konparatzeko.
LANDA LIBURUA	Tertulia egin ostean hurrei landa liburua aurkeztuko zaie. Jarraian bertan egin behar dutena azalduko zaie: haien landa liburua beteko dute, 3 zuhaitzen informazioarekin betez. Bertan honako hau sartu daiteke: Zuhaitzaren izena, Marrazkia, Altuera, Hostoa, Enborraren kalkoa ... (Landa liburuaren, diseinua ikusi nahi izatekotan, III. Eranskina ikusi.) Koaderno honek beste ebaluazio bat egiteko aukera emateaz gain, gurasoekin egindakoa partekatzeko aukera ematen du. Izan ere, umeek etxera eramango dute eta gurasoekin egindakoaz, bisitatukoaz eta ikasitakoaz hitz egiteko aukera ematen du.

3.2.1 Irteeraren emaitzak

Irteera hau aztertzeko, aurrekoaren arreta puntu berdinak kontuan hartu dira. Kasu honetan ere, irteera bi atal nagusietan banatu da, gelan egindako lana eta parkean

egindakoa. Izan ere, testuinguruak eragina dauka umeengan eta kasu hauetan oso desberdinak dira: gelan giro lasaiagoa dago; kalean, ordea, estimulu gehiago daude.

BEHATZEKO FOKUAK	ADIERAZLEAK	EMAITZAK (Gelan)	EMAITZAK (Parkean)
MOTIBAZIOA	Umeek jarduerarengan interesa erakusten dute.	Altua	Altua
	Jarduera egiterakoan ondo pasatzen dute. Dibertigarria egiten zaie.	Altua	Altua
ARRETA	Jarduera egiten den bitartean, umeek helduaren azalpenak jarraitzen dituzte.	Altua	Altua
	Talde giroa positiboa da azalpenekin jarraitzeko.	Altua	Ertaina
PARTE-HARTZEA	Umeak euren ekarpenak egiten dituzte.	Ertaina	Ertaina
	Galderak egiten dituzte.	Ertaina	Nahiko Baxua
	Ekintzan gogotsu parte hartzen dute.	Altua	Altua
AUTONOMIA	Jarduera laguntza barik egiteko aukera dute.	Ertaina	Nahiko Baxua

Altua: ume gehienekin betetzen da. (20-15 ume)	Ertaina: Talde erdia baino gehiagorekin betetzen da. (15-10 ume)	Nahiko Baxua: Talde erdia baino gutxiagorekin betetzen da. (10-5 ume)	Baxua: Ume gutxirekin betetzen da. (5-0 ume)
---	---	--	---

* Taulak osatuago ikusi nahi izatekotan, V.Eranskina ikusi.

Taula erreparatuz, orokorrean emaitzak nahiko onak direla ikus daiteke, batez ere, aurreko irteerarekin konparatuz gero. Izan ere, goian aipatu den bezala umeak irteeraren protagonistak izatea bilatu da. Horren ondorioz, umeen arreta eta motibazioa oso altua izan da. Horrek eragin zuzena izan du umeen jarreraren: haien interesa, parte-hartzea...

Umeen jarrera alde batera utzita, ikasleek zenbait ezagutza eskuratu dituztela esan dezaket. Izan ere, irteera osteko tertulia egitean eta landa liburua osatzean umeek arreta mantendu zutela adierazi zuten. Alde batetik, hostoak aztertzen eta igartzen ikasi dute. Izan ere, irteera egin ondoren, patioan ipuinean zein parkean ikusitako zuhaitzak (Ezkoa, Ereintza eta Haritza) aurkitu zituzten inolako agindu zein laguntzarik gabe.

Beste aldetik, esan bezala, zuhaitz bakoitza aurkitzean, behatu eta aztertu ostean, umeei zenbait azalpen eman nizkien. Tertulia egitean eta hipotesiak berrikustean, umeei zuhaitzei buruzko galderak egitean (izena, ezaugarriak, zertarako erabili ohi diren...) guztien artean gai izan ziren galdera guztiak zuzen erantzuteko. Gainera, landa liburuetan zuhaitzak marraztean, aipaturako zenbait ezaugarri adierazi zituzten. Adibidez, ereinotzak ez duela enbor bakarra baizik eta enbor batzuez osatuta dagoela.

Beraz, esan daiteke umeen jarrerak eta interesak lagundu duela zuhaitzen inguruko ezagutza batzuk eskuratzeko eta prozesuan zehar aktiboki parte-hartzeko.

Honetaz gain, ikasleek zientzia prozedura batzuk martxan jarri eta modu praktiko batean ezagutu zituzten: behatu (hostoak konparatzean), sailkatu (hostoak multzokatzean), ikertu (zuhaitzei buruzko informazioa eskuratzeko), hipotesiak egin (parkeko argazkiak ikustean eta haien iritziak ematean), hipotesiak frogatu (parkean konprobatu) eta gero zuzendu (tertulia egitean).

4. Ondorioak

Marko teorikoan ikusitakoa oinarritzat harturik, jarraian behaketa eta esku hartzea egin ostean ateratako ondorioak azalduko dira. Horretarako alde zuzenetik bi irteeren arteko ezberdintasun nagusiak aztertuko dira:

	Eskolak proposatutako irteera	Nik proposatutako irteera
Bizitatutako Lekua	Leku itxiak	Leku irekia
	Bi kasuetan bisitatuko ziren lekuak eskolatik oso gertu zeuden.	
Azalpenak	Gidariak eta audio-gidak	Irakasleak (Kasu honetan nik)
Beste pertsona batzuekiko elkarrekintza	Gidariarekiko elkarrekintza besterik ez.	Parkean aurkitutako pertsonekin elkarrekintza.
Irteera gauzatzeko epea	Egun bakarra	3 egunetan zehar
Haurren parte-hartzeko aukera eta autonomia	Haiiek parte-hartzeko aukerarik ez, haien betebeharra azalpenak entzutea eta galderaren bat erantzutea izan zen.	Irteeraren hainbat momentutan umeen parte-hartzea eta autonomia ezinbestekoa izan zen: - Hipotesiak egitean - Zuhaitzak bilatzean - ...
Motibazioa eta arreta	Umeen interesa eta parte-hartzea murrizten doa, haien ez direlako ikaskuntzaren protagonistak.	Umeen motibazioa eta arreta altua da momentu oro, izan ere, manipulatzeko zein ekarpenak egiteko aukera anitzak dituzte.
Irteera osteko jarrera eta interesa	Irteera ostean haurrek ez zuten berriz horri buruz hitz egin edo galdetu.	Hurrengo asteetan haurrek hosto gehiago ekarri zituzten gelara eta patioan zuhaitzak aztertu zituzten inork agindu gabe.

Esparru teorikoan azaldu den bezala, irteerak oso erabilgarriak izan daitezke hezkuntza arloan. Izan ere, pentsamendu prozesuak (erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, errealitatea zein bizilekua ezagutzeko) lantzeko erabilgarriak dira. Horrez gain, berezkoa duten ludikotasunari esker, umeengan interesa eta motibazioa eragiten dute.

Lan honetan aztertutako bi irteeretan ezaugarri nagusi horiek ikusi ahal izan ditugu; nahiz eta neurri desberdinean izan. Lehenengo irteeraren kasuan, haurren alde aurreko motibazioa zein jakin-mina oso altua zen; baina, irteera aurrera joan ahala, umeek izan behar zuten jarrera pasiboaren ondorioz zein gidariek eman zituzten azalpenen ondorioz, berezko motibazio eta interesa galduz joan zen. Hortaz, esan daiteke kasu honetan irteerek eskaintzen dituzten abantailak ez direla ondo aprobetxatu.

Beste irteeran, ordea, umeen motibazioa eta interesa askoz egonkorragoa izan da. Hau da, irteeraren hiru momentutan zehar, ikasleek jarrera askoz aktiboago zein parte-hartzaileagoa izan behar zuten; irakaslearekin batera informazioa eskuratu behar baitzuten, ez zen bakarrik azalpenak entzun.

Honetaz aparte, irteeretan ikaskuntza esanguratsu bat egiteko, ezinbestekoa da gelan lantzen denarekin lotura izatea. Bi kasuetan, baldintza hau ez da guztiz bete. Izan ere, irteerak egin ziren momentuan lantzen ari zen gaia ingurune naturala, animaliak zehazki, zen. Beraz, eskolak proposatu zuen irteerak ez zuen inolako zerikusirik gelan landutakoarekin. Honen ondorioz, haurrek zailtasun gehiago izan zituzten azalpenak ulertzeko. Gainera, kasu honetan, ez zen irteeren oinarritzko egitura bete (aldez aurreko, bitarteko eta osteko jarduerak). Hortaz, irteeran landutakoa ez zen gelan indartu edota birpasatu.

Nik proposatutakoaren kasuan, erlazio gehiago zuen, animaliak eta landareak zerikusitu estuagoa dutelako. Hala ere, haurrek irteera askoz hobeto ulertzeko eta gelan lantzen zenarekin harreman gehiago izateko ahaleginak egin ziren. Horretarako, irteera egin baino lehen egindako jarduerak erabili ziren. Ahalegin horiek erabilgarriak izan ziren, umeek primeran ulertu zutelako irteeraren xedea zein emandako azalpenak.

Aldez aurretik aipatutako guztiagatik, niri iritziz, irteera osteko erantzuna bi kasuetan oso ezberdina izan da. Eskolak planteatutako irteeraren kasuan, egun bakarrera mugatu

zen. Horren ostean, ez ikasleek ez irakasleak ez zuten horri buruz berriz ere hitz egin. Beste kasuan ordea, umeen jarrera askoz positiboagoa izan zen. Alde batetik, irteeraren emaitzetan azaldu den bezala, inork agindu gabe, zenbait ikasleek parkean zein ipuinean ikusitako zuhaitzak aurkitu zituzten. Horretaz oso harro sentitu ziren eta inolako zalantzarik gabe irakasleei eta beste ikasleei haien aurkikuntzaren berri ematen zieten.

Bestetik, haien familiakoekin, arratsaldeetan hostoak bilatzen zituzten gero gelan haiei buruz ikertzeko; hainbeste hosto ekarri zituzten non kartoizko kutxa bat bete genuen. Are gehiago, aste santuko oporrak pasa ostean, oraindik ere hosto batzuk ekarri zituzten. Interesgarriena, hostoen jatorriari buruz, haiek egiten zituzten hipotesiak zein bata besteekiko zuzenketa ziren.

Azkenik, nik diseinatutako irteeran zentratzea gustatuko litzaidake. Esparru teorikoan azaldu den bezala, irteeren bidez irakaskuntza orokorra landu daiteke. Hau da, nahiz eta natur zientzien alorrean zentratu, irteerek irakaskuntza globala lantzea ahalbidetzen dute. Parkera egindako irteeran bertute hori bete egin da:

Inguru naturalaren ezagutzan zentratuz gero, inguru fisiko eta naturalari buruzko ezagutzak landu dira, behaketaren, bilaketaren eta manipulazioaren bidez, sailkapenak eginez, elementuen ezaugarri desberdinak aztertuz... **Inguru sozialari** dagokionez, bere gertuko ingurunea eta bertan bete behar diren arauak zein egoteko modua ezagutzeaz gain, umeentzat aberasgarriak izan daitezkeen elkarrekintzak gertatu ziren:

- Irakaslearekiko elkarrekintza: elkarrekiko galderak, hipotesiak egitean, irudiak aztertzean...
- Ikasleen arteko elkarrekintza: bai tertulietan zehar bai irteeran zehar, eztabaidak sortzen ziren eta bata besteari zuzenketak egiten zituzten. Adibidez: zuhaitzak bilatzean, baten batek zuhaitz okerra aukeratzean, haien arteko zuzenketak egiten zituzten, hostoen arteko ezaugarriak konparatuz.
- Ezezagunak ziren pertsonetikiko elkarrekintza: parkean zeuden hainbat agureek laguntza eskaini ziguten. Kasu batean, ereinotzaren hostoekin egin daitezkeen zenbait errezeten berri eman zigun eta beste pertsonaren kasuan, pozoitsuak ziren landareen berri emanez.

Horren aritik, **komunikazioa** ere landu egin da, ahozkoa ez ezik, idatzizkoa edota marrazki bidezkoa ere jorratu dira, nahiz eta neurri txikiagoan izan: ipuina kontatzean, hipotesien kartulina sortzean, landa liburua osatzean, parkeko irudiak aztertzean etab.

Bukatzeko, **autonomia pertsonalean** zentratuko naiz. Lehenago azaldu den bezala, momentu oro haurrak jarrera aktiboa izatea bilatu da. Hala ere, alor honetan zailtasunak egon dira. Izan ere, nire aburuz, gelan aurrera eramaten den metodologia dela eta, haurrek irakaslearen azalpenaren, onarpenaren edo zuzenketaren zain daude momentu oro. Horregatik, nahiz eta haurrek haien kabuz lan egiteko aukerak zituzten, nire onespena behar zuten. Adibidez: kalkoak egiteko, parkeko objektuak biltzeko edota elementu batzuetan arreta jartzeko (zuhaitzeko fruituak edota intsektuak esaterako) nire aginduak behar zituzten. Gainera, testuinguru akademikotik at (patioan edo kalean) haien espiritu kritikoa martxan jarri zuten, haien bilaketak eta hipotesiak egiten. Hortaz, esan bezala, izan duten irakaskuntza-ikaskuntza eredia dela eta, nire iritziz, haien autonomia eta jakin-mina neurri batean mugatu egin da. Horregatik, egoera berri honen aurrean ez zekiten nola jardun.

Bukatzeko, lan hau irteerek umeengan duten eragina konprobatzeko erabilgarria izan da. Lanean aztertu den bezala, eragina zein emaitzak oso ezberdinak izan daitezke irteeraren planteamenduaren eta irakaslearen inplikazioaren arabera. Hortaz, lan honen bidez ikasi ahal izan dut, garrantzitsua dela umeari parte-hartzeko aukerak ematea, haien interesak kontuan hartzea eta motibatuta mantentzea. Izan ere, horren arabera ikasleek jarrera harkorragoa eta jakin-mina handiagoa izango dute.

Horrez gain, lan hau baliagarri izan da irteerak, Haur Hezkuntzan erabiltzeko, baliabide didaktiko oso aproposak direla jakiteko. Izan ere, irakaskuntza global bat sustatzeaz gain, umeen interesa zein inplikazioa aprobetxatuz, ondoren proiektu edo unitate didaktiko bat egiteko aukera bikaina izan daiteke.

5. Eskerrak

Lan hau bukatu baino lehen Santurtziko eskolari eskerrak eman nahiko nizkioke, bereziki 5 urteko gelako tutorea zein ikasleei; nigan izan duten konfiantzagatik eta nik diseinatutako irteera gauzatzeko aukera emateagatik.

Bestalde, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolari eta zehazki, nirekin lan egin duen tutoreak egin duen lana eskertu nahiko nuke. Izan ere, berak emandako argibideak zein bere parte-hartzea ezinbestekoak izan dira lana aurrera eramateko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

Benejam. P. (2003). *Los objetivos de las salidas*. Iber, didáctica de las ciencias sociales 36, 7-12

Estorch Martin, P., Gomez Beltrán, M^a D., Gonzalez Perez, E., Quesada Garcia, M^a D. eta Quijasno Mezquita, R. (1993). *Salimos y aprendemos*. Junta de Andalucía. Conserjería de Educación y Ciencia.f

García Arranz, L. (2016). *Las actividades fuera del aula como recurso educativo para la etapa de Educación Infantil*.

Molina Ruiz E. (2006). Organización de experiencias educativas en contextos no formales de aprendizaje.

Morentin M. eta Guisasola J. (2013). *Visitas escolares a centros de ciencias basadas en el aprendizaje*. Alambique 73, 61-68

Predinaci, E. (2012). *Trabajo de campo y aprendizaje de las ciencias*. Alambique 71, 81-89

López Marín, J. A. (2007). *Las salidas al campo: mucho mas que una excursión*. Educar en el 2000: revista de formación del profesorado 11, 100-103

Puche, S. M. (2010). *El museo “La casa encantada” de briones en la enseñanza de la historia: propuesta para una salida escolar para educación primaria*. Contextos educativos: Revista de educación 13, 71-82.

Urones, C. eta Sánchez-Barbudo, M. (1997). *La organización de salidas al entorno en educación infantil*. Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado, 1.

Vilarrasa, A. (2013). *Salir del agua reapropiarse del contexto*. Ibar, Didáctica de las Ciencias Sociales 36, 13-25

<http://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/18584/1/TFG-O%20760.pdf> -tik berreskuratua (2016-11-18)

<http://www.santurtzi.net/es-ES/Paginas/default.aspx> -tik berreskuratua (2017-05-03)